

Aieteko Gurutzeaga Ikastola, haren
hastapenetatik Axular Lizeoaren
inauguraziora arte

Aurkibidea

Aieteren hastapenak

Biztanleriaren eguneroko bizitza

Euskararen egoera Aieten 36ko Gerraren aurretik eta ondoren

Ikastolen berpiztea eta nola sortu zen Aieteko ikastola

Andereñoak eta Titulazioak

Ikastolaren integrazioa auzoan

Ikastolengan eragina izan zuten gatazka politiko eta sozialak

Legalizazioak eta Eskola-liburuak

Arostegi SAren eraketa eta Axular Lizeoaren eraikuntza prozesua

1969-1979 bitarteko ikasturteetako datuen banakatzea

Gurutzeaga Ikastolako Zuzendaritza-Batzordeak eta beste kolaboratzaile batzuk

Aieteren hastapenak

Gure historia taxutu duten gertaera, pertsona eta mugarriak ahaztea gizakiari maizen gertatzen zaion gauzetako bat da. Jakinarazten ez den guztia belaunaldi batetik bestera galdu egiten da. Mendez mende iraun duena desagertu egiten da urte gutxi batzuen buruan. Horregatik, izan ziren bezala oroitu eta kontatzea hiritarren betebeharra da. Luis Cernudak zioen moduan, “gogoratu zuk eta besteei gogorazi”.

Aiete izena, gaskoi jatorrikoa, Amara Gainean kokatuta zegoen baserri zahar bati zor zaio. Hayet, Fayet, Ayet izenez ere izendatzen zuten, gaskoiz “bi aldapen artean” esan nahi duena. Izenaren antzinatasunak XII. mendean zehar iritsi ziren lehen gaskoien garaira garamatza, zeintzuk Bidasoa eta 1014an Sancho Nagusiak Leireko Monasterioari eginiko dohaintzan aipatzen zen hirigune haren artean (“Donostia deitzen dioten monasterioa, itsasertzean, Hernanirekin mugan”) finkatzea aukeratu zuten.

Madrialdik Baionarako Errege Bidea Donostiatik igarotzen ez zenean, Goiko Galtzara zen hiritik ibilbide nagusira zihoan komunikazio biderik garrantzitsuen, Andoain, Hernani eta Astigarragatik, Irungo mugaraino jarraitzen zuena. Goiko Galtzara toponimoarekin ezagutzen da Aiete gurutzatzen zuen galtzada, Amara eta Lugaritz auzoak banatzen zituen. XX. mendera arte bertako biztanleak goikogaltzaratarak izenarekin ezagutzen zituzten. Gaur egun Manterola kalea den horretan, San Martin auzoan, hasten zen eta Aldapetako maldatik Bentaundi baserriraino jarraitzen zuen, Oriamendiko ermitara igotzen zen, Hernanira jaisteko, Bidaurreta eta Berakorte baserrien ondora. Geroago, 1776. urte inguruan, gaur egun Betaundi eta Galarretatik Hernanira doan errepide-adarra eraiki zen. Historiaurreko galtzada honen garrantzia Donejakueko bidea egiten zuten erromesen joan-etorriak egiaztatzen du. Erromesak Mirakruz gainetik Donostiara jaisten ziren, Urumea ibaia txalupaz edo Santa Katalina zubia erabiliz zeharkatzen zuten eta ondoren Aietetik Oriamendi igaro eta Hernanira joaten ziren, Oiartzundik zetorren bide nagusiarekin elkartuz. Beste batzuek Munto baserritik kostaldeko ibilbidea aukeratzen zuten, Zapatari eta Portutxotik Oriora zihoana. Hauek izan ziren zeuden hamaika bigarren mailako bide horietako batzuk, zuhaitz nagusitik ondoren berriz ere elkartzeko erauzten direnak. Hona iristen zirenak, zuhurtziaz, Donostia zeharkatzeko “bigarren mailako bide” hau erabiltzen zuten, musulmanen besoetan erortzea ekiditeko edota elurte handien garaietan Sonport eta Orreagako gainak saihesteko.

Ehunka urtetan Donostiako harresi kanpoko lurraldearen parte izan zen eremu basotsu bat zen, Urgullen oinean gotorleku militar bezala prestatutako hiria babesten zuena. Hernaniraino iristen zen harresiz kanpoko lurraldean, jatorrizko familia gaskoi batzuk kokatu ziren zeinek “artigak” labakitu zituzten, *nekazaritza lursailen prestakuntza* esan nahi duen hitz gaskoia, euskaraz *luberr* eta gaztelaniaz *novalia* deritzoguna. Belloc, Melodi, Puyu, Borroto, Morlans, Merkelain, Miramón, (Hayet – Fayet - (Ayet) bezelako toponimoak XX. mende erdialdera arte mantendu dira eta familia haien kolonizazio eta presentzia berresten dute.

Hiriko zonalderik garaienetakoko baten egoteak ematen zion kokapen estrategikoa dela eta, behin baino gehiagotan Ayettarren etxondoa kuartel nagusi moduan erabili zuten. Aiete oso aspaldiko garaietatik kokaleku militarra izan zen, Donostia menderatzeko ahaleginean historian zehar atzerritar zein espainiar armadek buruturiko gerra, setio eta inbasio anitzetako bataila garrantzitsu zein odoltsuren eszenatoki. Hiriko harresiez kanpo zeuden baserriak izan ziren batez ere bere burua gerren tartean sartuta ikusi zutenak eta berauen izugarrikeria pairatu zutenak.

Lehen Karlistadan jazotako gertaeren artean, bi data esanguratsutan agertzen da Aiete auzoa inplikaturik: lehenbizi, 1836ko maiatzaren 5ean, liberalak tropa ingeles eta badian ainguratuta zeuden Royal Naviko "Phoenix" eta "Salamander" itsasontzien laguntzaz, lerro karlistak bonbardatu zituztenean eta karlistek hiri inguruan mantentzen zuten setioa haustea lortu zutenean, Pintoré, Aize-Errota, Puyu, Lugaritz, Katxola Zar gotorlekuetan, Aranjuez eta Marigomistegiko baterietan eta Morlarnseko bolborategian borroka odoltsuak gertatu ondoren. Bataila ankerra eta odoltsua izan zen, milaka zauritu utzi zituen, 500 hildako karlisten lerroetan, horien artean Jose Miguel Sagastibeltza jeneral ausarta, eta ingeles eta liberalen hildako kopuru are eta handiagoa. Gorroto handia zegoen bi alderdien artean.

Gerrak oraindik luze iraungo zuen eta Aiete auzoa bigarrenez nabarmendu zen. Lacy Ewans jeneral ingelesaren agintepean zeuden tropa ingeles eta liberalak 1837ko martxoaren 10ean Donostian sekulako erasoaldia hasi zuten, hirigunetik gertu zeuden toki garaiak menderatuz, karlisten erresistentzia gogorra izan bazen ere. Hilaren 15ean, Jauregi "Artzaia" jeneral liberala, tropa eta artilleria oparoz Betaundi gezilehodun baserriaz eta Oriamendiko gotorlekuaz jabetu zen, karlisten aldeko zirenekin buruz buru borrokatu ostean, eta Santa Barbarako gotorlekuan eta Hernanin babestera behartu zituen. Biharamunean, Don Sebastian Infanteak, ibilaldi luze eta oso gogorra egin ondoren, Hernanira iristea lortzen du eta tropa karlistak indartzen ditu. Kontraeraso odoltsu bat egin ostean, Oriamendi gotorlekua berreskuratu zuten, Britainiar Legioan makina bat hildako eta zauritu eraginez, Donostian babesa ondo kostata lortu zutenak. Ez zen presorik izan. Liberalak 2000 hildako inguru izan zituzten bataila honetan, karlistek ordea horren erdia baino gutxiago. Arizmendi baserrian (Hernanin), istorio ikaragarria gordetzen da: horrenbestekoa izan zen inguruan gorpuen kopurua, non denak lurperatu ordez, asko eta asko pilatu eta erre egin zituzten. Gerraren izugarrikeriak!!! Sakabanatzea orokorra izan zen. Musikariekin instrumentuak bertan utzi zituzten eta arrantxo-jabeek eltzeak.

Gerra garai luze eta jarrai honetan zehar, Gipuzkoa osoa arpilatua, sarraskitua, suntsitua eta zorpetua geratu zela esan daiteke. Lehen Karlistada baino lehen, Donostiako harresiz kanpoko auzoetan, 702 baserri zeuden eta gerra ostean, horietatik 365 suntsituta geratu ziren. Asko eta asko betirako desagertu ziren, beste batzuk berreraiki egin zituzten XIX. mendearen erdialdean. Bertako biztanleek gerraren ankerkeria bizi izan zuten. Foru armaden eta inbaditzaileen hornidura baserriarren lepo egin zen. Hauek elikagaiak, bazka, abereak eta zauritu eta gaixoei ostalua ematera behartu zituzten. Baserrietan ezin zuten nekazaritza jarduerarik burutu, gizonezkoak, organo abereak eta gurdiak konfiskatzen zizkieten, azken hauek kanoiak eta bestelako hornikuntzak eramateko oso estimatuak baitziren. Basoek mozketa izugarriak jasan zituzten. Milaka fruta-arbola moztu zituzten sua egin ahal izateko. Donostiako zonaldean soilik, 68.000 sagarrondo eta beste mota batzuetako 25.000 arbola suntsitu zituztela zenbatetsi daiteke. Beste zerbitzu bat, "ekipajeari" dagokiona, herriek beren lurretan egoteagatik armadari egiten zioten ekarpena zen, adosturiko prezio baten truke. Azkenean, tropa inbaditzaile guztiak hitzemandako kalte-ordainak ordaindu gabe alde egiten zuten eta familia asko miseria gorrian geratzen ziren. Goseteak ez ziren bakarrik gerren ondorioz gertatzen, beste batzuetan lehorteei eragindako uzta txarren ondorioz edota mantenu nagusiztat zuten artoari eta babarrunei erasotzen zieten denboraleen kausaz gertatzen ziren.

Biztanleriaren eguneroko bizitza

Aiete hiriaren erdialdean kokatua dago eta historikoki baserri kutsu nabarmena izan du. Biztanle-dentsitate txikiko etxe, baserri eta sagardotegi multzo sakabanatua zen, % 90ean baserritarra. Inoiz ez du izan elkartzeko lekurik, ez frontoirik ez plazarik. Igandetako meza osteko garaia eta gertu zegoen Muntoko sagardotegia izan ohi ziren Aietearren topagune eta elkartzeko aitzakia. Auzoan denok ezagutzen genuen elkar, bai familia abizenagatik, bai baserriaren izenagatik edota ezizenagatik.

Auzoan hirurogei baserri baino gehiago zeuden eta bertako biztanleen gehiengoa landa jardueretan aritzen zen. Bertan, familia osoak lan egiten zuten, gizon, emakume, gazte eta baita haurrek ere. Oinarrizko tresneria baliatuz lanaldi luzeak burutzen zituzten baserria emankor bilakatzeko helburuarekin. Goizeko lehen orduetan, baserritarrak egunero San Martin eta Bretxan zituzten postuetara joan baino lehen, esnea etxez etxe eramaten zuten lapiko batean eta banaketa txantxilarekin. San Martin eta Bretxako postuetan barazkiak, fruituak, loreak, arrautzak, saltzen zituzten besteak beste. Baserrira bueltan, txerriak gizentzeko zi etxe partikular eta hoteletatik jasotako gurdia bete *txerrijan* ekartzen zuten. Hiria oso gertu zegoenez baserriek arropa garbiketa zerbitzua ere ematen zuten, baserritik gertu zeuden latsarrietan arropa garbitu, lehortu eta tolestatuta bueltatzen zitzairen. Auzoan lantokirik ez zegoenez, gainontzeko biztanleria gertu zeuden lantegietara joaten zen: Udal Gas lantegia, Rezola zementuak, Michelin, El León Garagardoak, Suchard Txokolateak... Beste batzuk lanaldi partialean aritzen ziren baserrian eta baita garraiolari, igeltsero eta lorezain moduan ere. Ia baserri guztiak errentan hartutakoak ziren, *maizterrak*.

Gerra Zibila bukatu bezain laster, Francok bere udako oporrak Donostian pasatzea erabaki zuen. – ez gustuko zuelako, euskaldunak gorroto baitzituen eta hiria bera ez baitzen erregimeraren aldeko- baizik eta aurretik monarkiak, nobleziak, Diplomatiako Kideriak gauza bera egin zutelako eta gutxiago ez izateagatik.. Buruzagiak bere udako oporraldia Galizia eta Donostiaren artean banatzen zuten. Uztailaren 18an La Granja de San Ildefonso (Segovian) Altxamendu Nazionalaren urteurrena ospatzeko harrera-ekitaldia izaten zen jardun politikoaren etena eta oporren hasiera markatzen zuena . Urte horietan Donostian biltzen ziren frankismoaren gaina eta bikaina, noblezia, Vatikanoren nuntzioa, Espainian akreditaturiko Gorte Diplomatiako Kideria eta Gobernuako Ministroak, urtero Ministro Kontseilua Aieteko jauregian burutzen zelako..

Francok Mugimendu Kontseilu Nazionaleko berrogei bizi bitarteko kideak Aieten hautatu zituen, “Aieteko berrogeiak” bezala ezagutzen direnak. 1939ko bere lehen egonalditik 1973ko azkena bitartean Aieteko jauregian igaro zituen 699 egun horietan bizilagunen artean beldurra hedatu zen, eguneroko bizitza eta ohiturak oztopatzen zituen armada batez inguratuak sentitu ginelako.

Diktadorearen aurka egindako atentatu zapuztu ugarietako bat Aieteko jauregiaren inguruan burutu zen 1962ko abuztuan, Alkiza baserrian zehazki, Isturingo La Milagrosa mojen komentu aurrean. CNTko Jordi Conil Vall eta Cipriano Mera anarkistek ETArekin laguntza izan zuten. Hogeita bost kilo “plastiko” pasa zizkienn Donibane Lohitzunetik Donostiara txalupa batean. Komandoak karga errepidean jarri zuen arekatik tunel txiki bat induskatu ostean. Arazo bakarra Francoren etorreraren data eta ordu zehatza jakitea zen, pilek ezin baitzuten lurperatuta zazpi egun baino gehiago igaro. eta honek zailtasuna larria gehitzen zion proiektuari. Francok bere etorrera atzeratu zuen urte horretan. Abuztuaren 17an komandoak Aietera Doña Karmen iristen ari zela ikusten du , baina Estatu Buruaren autoa ez zetorrela ohartzen da.. Segundo gutxiren buruan bonba martxan ez jartzea erabaki zuten. 20an arratsaldeko 19.45etan Kontxako Badiako uretan “Azor” itsasontziak aingurak bota zituen, Franko barruan zela. Pilak desaktibatzeaz zeudenez eta helburua lortzea ezinezkoa zenez, biztanleria zibilarentzat arrisku handia suposatzen zuela ikusirik, kargaz libratzea komenigarria zela erabaki zuten. Horregatik, egunsentian bonba lehertu zuten. “Hilerrietako Bakearen” Espainian inoiz ez zen ezer gertatzen. Abuztuaren 21ean prentsa espainolak egunkarien txoko ezkutu batean petardo batek leherketa bat eragin zuela eta gertu zegoen nobizio-etxe bateko kristalen pitzadura soilik eragin zuela zioen berria argitaratu zuen.

1962ko Hiri Antolamendu Plan Orokorren onarpenak Donostiako ondarearen suntsipenaren aldi ilunenari hasiera eman zion. Hirigintza-garapen azkarrak Aiete hiriaren segida bilakatu zuen. Hamarkada gutxiren buruan, etxe eta baserri gehienak desagertzen joan ziren eta baita txalet eta jauregitxoak ere. Honela, urbanizazio berri dezente sortu zen. Auzoko hirigintzaren garapen indartsuak urte gutxitan hiritar biztanleriaren hazkunde handia ekarri du. Biztanleria mota honek ez ditu garai batean Aieten ezagunak eta komunitatean oso erabiliak ziren izen, toki eta toponimoak ezagutzen, egun gutxi batzuek soilik oroitzen dituztenak.

Euskararen egoera Aieten 36ko Gerraren aurretik eta ondoren

Zalantzarik ez dago mendeetan zehar euskara zela biztanleria autoktonoaren komunikazio hizkuntza. Administrazio-hizkuntza, lehenik latina, ondoren gaskoia eta gero gaztelania, goi mailako biztanleek eta kargu eklesiastikoeek soilik mintzatzen zuten. Espainiako Administrazioak ez du Euskara hizkuntza ofizialtzat hartu duela hamarkada gutxi batzuk arte.

Nolakoa zen euskararen egoera XX. mende hasieran Aieten? Ez dago datu zehatzik, baina garai hori ezagutzen duten auzoko biztanleekin hitz egin ostean, honako ondorio hauek atera daitezke: euskara harresiz kanpokoko auzoen arteko komunikazio hizkuntza zen. Gaztelania euskararen kaltetan hedatzen hasi zen eta 36ko Gerraz geroztik are eta indar gehiagorekin, diktadura garaian errepresioa izugarria izan baitzen. Euskaraz jendaurrean egitea estigmatizatua zegoen eta jazarri egiten zen. Hori izan zen euskara ahultzearen lehen arrazoa eta nagusia, baina beste batzuk ere izan ziren: Espainiako beste probintzietako pertsonen etorrera masiboa eta beste hizkuntzak ikasterako orduan sentikortasun falta.. Euskararen erabilera auzoan ez zen homogenea, baserriarrek mantentzen zuten, kaletarrek ulertzen zuten, baina batzuek soilik hitz egiten zuten, eta etorkin eta uda pasatzera zetozenak gaztelaniaz soilik mintzatzen ziren.

Ikastolen berpiztea eta nola sortu zen Aietekoa

Ikastolen mugimendua euskal gizarteak XX mendean egindako inbertsio garrantzitsuena dira. Gaur egun, Euskal Herria nekez uler daiteke Ikastolak aipatu gabe.

Euskal Herriak historikoki ez du euskal alfabetatzerik izan. XIX mende erdialdean eta XX mende hasieran, hezkuntza euskaraz ematearen aldeko politika ezartzeko ahaleginak egin ziren. Saiakera honetan, Campi3n idazleak, Resurrecci3n Maria Azkue idazle eta linguistak eta elizak parte hartu zuten. Ekimen xumeak izan ziren, hau da, laguntza gabe egin ziren eta espainiar gobernu desberdinen parte hartzerik gabe. Hala ere, 1914an euskaraz irakatsi nahi zuten hainbat eskola ireki ziren; Donostian, esate baterako, Miguel Mu3oa eta beste batzuk Bilbo, Araba eta Nafarroan... 36ko gerrarekin ekimen hauek ezerezean geratu ziren. Frankok diktadurak iraun zuen 40 urteetan gerra aurretik erabili ziren euskarazko hezkuntza proiektuak erabat debekatu zituen eta honekin batera euskal identitate eta kulturarekin lotura zuen guztia. Euskara eremu publikoan baztertua izan zen, denok ezagutzen ditugu " kristianoz hitz egin" bezalako esaerak. Gerraostean euskararen irakaskuntza klandestinoki burutu zen, kasu batzuetan Elizaren babesean eta bestetan euskaltzale amorratua zen Elbira Zipitria irakaslea bezalako pertsonen lanari esker, etxe-eskoletan zuen esperientzia baliatuz,. Ondoren, Karnele Esnal, Jone Forcada eta beste hainbat maistra elkartu ziren, euskaraz hezteko eredu berri bat sortu zutenak.

1968ko udaberrian munduan askatasun eta aldaketa haizeak hedatzen ari ziren : eskubide zibilen aldeko borroka, Vietnango egoera aldatu zuen gerren kontrako mugimendua, mugimendu antinuklearra, feminismo berria, diktadurak dardarazi zituen demokrazia gosea. Aieten hainbat gurasok haien seme-alabek heziketa euskaraz jasotzearen garrantziaz ohartu ziren, estatuaren eskola publiko eta eskola erlijiosoek eskaintzen zuten aukerekin alderatuta molde desberdina eta modernoagoa, garai berrietara egokitutako metodo pedagogikoetan oinarritua. Urte horietan auzoan bi eskola publiko zeuden, Isturin eta Askarratene. Horiez gain, fraide eta mojen eskola erlijiosoak ere bazeuden. Zer egin zuten gurekin eskolan? Euskaraz hitz egiteagatik erregelarekin jo eta " No hablar3 vascuence en clase" ehun aldiz idaztera behartzen gintuzten. Ez genuen nahi geure seme-alabek horrelako esperientzia iraingarri eta kaltegarria bizi zezaten. Ikastolen sorrera aita eta ama askoren ekimen pertsonal moduan eman zen. Hauek bere euskal identitatea berreskuratu nahi zuten, eskolaren bitartez ezinezkoa zena.

Diktadura garaian legezko Haur Eskola bat irekitzeko aukera bakarra katekesi elebidun bat izatearena zen.

Aieten 3-6 urte tarterako Haur Eskola bat martxan jartzeko lehen urratsak honako hauek izan ziren:

- Gipuzkoako Ikastolen Elkartean, martxan zeuden Ikastoletan eta eliza eta Ikastolen arteko zubi lana egiten zuen Elizbarrutiko Ordezkaritzan informazioa jaso.
- Aieteko Gurutzega Parrokiako parrokiak, Juan Aizpitarrek, Haur Eskolako saioak emateko sakristiako gunea erabiltzeko baimena lortu eta hezkuntza agintarien aurrean babesak eskuratu. Ikastolak, Gurutzega izena hartu zuen.
- Auzoko familia guztiak bisitatu eta proiektu berriaren inguruan informazioa eman, haurrak eta bazkide berriak lortzen saiatuz. Lan hau Claudio Artesanok eta Luis Irigoienek, Aieteko apaizak, egin zuten.
- Andereño bat aurkitu. Lehenengoa Lazkaoko Arantxa Aldasoro izan zen.

Mugimendu honen alde hainbat hilabete lanean igaro ostean, emaitzak ez ziren oso baikorrak izan. Zazpi haurrek soilik eman zuten izena, alabaina, ehun bazkide kolaboratzaile lortu genituen.

Haur kopuru baxuaren arrazoiak hainbat izan litezke: Ikastolak laguntza ofizialik gabe, baliabide teknikorik gabe, giza baliabiderik gabe sortu ziren... Eginbehar asko zeuden, arazo legalak zituen proiektu berria zen, ez zegoen emaitzarik oraindik, irakasle tituludunak gabe, eskola libururik gabe, zentro propioarik gabe, jolastokirik gabe eta baliabide ekonomikoen faltan. Horrez gain, ama eta aita askok bide pedagogiko berriez ez ziren fido. Ez zen batere erraza aita eta ama berriak Ikastolara erakartzea, beraz kontzientziazio lana, batez ere hasieran, neketsua izan zen. Lehen urteetan Ikastolara zetozen haurrak gehienbat Etxadi, Bidebieta II, Donostizarrako... urbanizazio berrietakoak ziren eta gutxi batzuk betidaniko auzotarren seme-alabak. Baserritar familiek bere seme-alabek euskaraz bazekitela adierazten ziguten eta gaztelania ezagutzeko beharra zutelara, honen falta, gurasoei gertatu bezala, ez sumatzeko. Bestalde, Aiete hein handi batean, baserri giroko auzoa izateak ere eragina izan zuen, izan ere, oso zabala zen, errepide lotura eskasak zituen, lantegi, kultur- eta kirol-gunerik ez zuten eta horrek guztiak bertako gazteria beste auzo batzuetara mugitzea eragin zuen.

Nahiz eta hastapenek itxaropenerako arrazoi handiegirik ez eman, aurrera jarraitzea erabaki genuen. Lehen urratsak ez ziren errazak izan baina ilusioz ekin genion urte haietako lanari. Haur-eskolari hasiera eman genion 1969-1970ean zazpi umerekin eta hiru hilabetera, bost soilik zeuden, bik urruti geratzen zitzaizela eta, joan egin baitziren. Lehen urte horietan haurrei irakurtzen eta idazten irakasteko euskarazko libururik eta material didaktikorik ez zegoenez, andereñoak bere lana burutzeko moldatu behar izan ziren. Makiltxo eta abakoak erabiliz, matematikako multzoen teoria, psikomotritzitatea, jokoak eta abestiak baliatuz lortu zuten helburua.

Jolastokia Ikastolako jolas garaiko patioa zen. Ikasturtean zehar hainbat irteera egiten ziren Donostia, Igeldo, Pasaia, Aralarra ...

Hasieran, haurrak Aieteko Haur Eskolan 3-6 urte bitartean egoten ziren. Ondoren, OHOk etaparekin jarraitzen zuten Antigua auzoan Jakintza Ikastolarekin lortutako hitzarmenari esker.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak 1969an eratu zen eta honako hauek izan ziren bertan onartu ziren printzipio batzuk: Ikastolen legalizazioa, Euskararen batasuna, Ikasle Buletinak, Formazio ikastaroak, Irakasleriaren Titulazioak, Testu liburuak euskaraz eta Ikastola bakoitzeko arazoei irtenbideak emateko idazkaritza bat. Lehen unetik modu xumean aritu ginen eta horregatik, Espainiako Hezkuntza Delegazioko ikuskatzeetatik babestuago geunden. Donostiako Reparadoras komentuko egoitza batean egiten ziren bileretara joaten ginen eta baita eskualdeko bileretara ere, Loiolako Santutegian. Gure ikasleek Ikastolen Elkarteak antolatzen zituzten udalekuetara joateko aukera zuten. Lehenengo urtean Saturrarana (Gipuzkoa) joan ziren, ondoren, beste urte batzuetan Anzinera (Nafarroa), Bernedora (Araba) eta

Urdirazera (Nafarroa). Aieteko Ikastolatik, azken bi udalekuetako zaharberritze lanetan Pili Goñi eta Claudio Artesano senar-emazteek parte hartu zuten.

Andereñoak eta Titulazioak

Ikastolen mugimendua 60. hamarkadan hasi zen Estatuak utzitako abagune eta zirrikitu txikiak baliatuz. Helburua Ikastola berriak sortu eta erregimen frankistak euskararekin zerikusia zuen guztia debekatzen zuen giro hartan hauek bultzatu eta mantentzea zen. Baina, aldi berean, Ikastolen mugimenduak bere hizkuntza eta identitatearen berreskurapenean lanean ari zen herri batu baten indar geldiezina zuen. Gerra ostean etxe/eskoletan klandestinoki euskaraz hezten aritu zirenen ildo jarraitu nahi zuen. Herriak sortu zituen Ikastolak eta herriarentzat sortu ziren.

70.hamarkadan, aitzitik, lehenetasunak bestelakoak ziren: haztea, hedatzea, izen ona lortzea, legalizazioa lortzea, laguntza ekonomikoak eskuratzea, eraikuntza berriez hornitzea eta material propioak sortzea. Matrikulatzeak modu ikaragarrian hazi ziren, garaiko jaiotze tasa altua eta Ikastolak lortutako prestigioari esker. Aldaketa ikusgarria izan zen.

Lehen urteetako arazo nagusienetako bat tituludun irakasleriaren urritasuna zen, beraz, hasieran hezitzaile gehienek ez zuen titulurik. Hala ere, Ikastolaren aldeko lan handia egin zuten, kontraturik gabe lan eginez, gizarte segurantza gabe eta gaizki ordainduta aritu ziren. Ikastola eta andereñoak euskaraz irakasteko eredu pedagogiko berrien bila hasi ziren eta bi esperientzia hartu zituzten nagusiki aintzat: alde batetik, Montessori eta Freinet pedagogen lanak, teknika desberdin eta berritzaileak erabiltzen zituztenak, eta, bestetik, Kataluinako Rosa Sensat Institutukoena, eskola katalanen tradizioaren jarraitzaile zirenak. Hauei esker udako ikastaro eta bestelako jarduera kulturaletan elkar trukeak burutu zituzten.

Espanian derrigorrezko eskolaratzea 9 urterekin hasten zen; Ikastoletan, aldiz, 3 urtetik aurrerako neska-mutilekin lanean hasteko erabakia hartu zen. Eskolaratzea mistoa zen, neska eta mutilak batera zeuden, ez ziren banatzen estatuko eskola eta eskola erlijiosoetan bezala. Joko, abesti eta eskolaz kanpoko irteerak ikasturteko jarduera pedagogikoak bihurtu ziren.

1969-1970 ikasturtean Gurutzeaga ikastolak Eskolaurreari hasiera eman zion eta Arantxa Aldasoro izan zen lehen andereñoa. 1971-1972 ikasturtean, M^a Pilar Goñi andereñoa batu zen. 1972-73an, Aieteko lehen ikasleek OHOk lehen ikasturtea hasi zituen Jakintza Ikastolan. 1975-1976 ikasturtean Karmele Urdanpilleta eta Marixabel Illarregi andereñoak batu ziren eta Arantxa Aldasorok postuari uko egin zion. 1977-1978 ikasturtean, Jakintza Ikastola jendez gainezka egonda ikasle gehiago jaso ezin zitzaenez, maila guztiak Aieten ematen hasi ziren. Etxadiko Urbanizazioan haur hezkuntzako ikasleek ikasten zuten eta parrokiaren OHOk lehen mailakoek Ixabel Aldasoro irakasle berriarekin. Hau dena Jakintza Ikastolaren araudipean izan zen, oraindik ez ginelako legez onartuak. Haur Hezkuntzako mailetara Maite Aramburu, Bittori Olaetxea eta Arantxa Ugartetxea andereñoak batu ziren. 1978-1979 ikasturtean OHOk bigarren maila hasi zen María Jesús Tapia andereñoarekin. 8 andereñoz osatutako talde honek hasi zuen Axularren ibilbidea.

Titulurik gabeko andereñoek euskara, musika, material didaktiko eta metodologia berrien inguruan formazioa jaso zuten, Donostiako Gordailu Elkartean, Bartzelonako Rosa Sensat Institutuan eta Hazparneko Nekazaritza Eskola Teknikoan. Hiru urtez, Bergarako UNEDen eskolak jaso zituzten asteburu eta udako oporretan. Honela, Irakasle-eskolako titulu ofiziala lortu zuten. Geroago, Eusko Jaurlaritzak jaulkiriko EGA, Euskararen Gaitasun Agiria, titulua lortu zuten, Hezkuntza Ministerioaren aurrean beren egoera legezkatuz.

60.hamarkadan, Gordailu inguruan biltzen zen irakasleen talde batek euskarazko fitxak eta liburu txikiak sortzen hasi zen: Ikastolako Hiztegia, Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Kostu ekonomiko handiko laguntza liburuak ziren. Ordura arte, bi liburu soilik zituzten, oso oinarritzakoak zirenak,

Xabierto eta Martin Txilibito, Lopez Mendizabalek idatziak eta XX mendearen hasieran argitaratuak. Ilkastolen Elkarteak Santillana eta Casals argitaletxeekin hitzarmena sinatu zuen, obrak euskarara itzultzeko, baina honek ez zuen esperotako emaitzarik eman. Azkenean testu berriak sortzea erabaki zen. Saioka proiektua 70. hamarkadan agertu zen Iker enpresaren baitan eta OHOrako euskarazko material didaktikoaren sorkuntzan mugarria izan zen. Proiektuak pedagogia aktiboa aurrera eraman nahi zuen eta ikasmaterialak euskaraz sortu behar zirela (ez zirela itzuli behar) eta euskara batua erabiliz egin behar zirela argi zuen.

Ikastolaren integrazioa auzoan

Ikastolak hastapenetatik auzoan integratzeko, euskara sustatzeko eta euskal identitatea berreskuratzeko asmoa izan zuen eta honekin batera baita ohitura eta kultur jarduerak mantentzekoa ere.

Olentzerorekin etxez etxe eta baserriz baserri ateratzen hasi ginen, gure bazkideei emandako laguntza eskertzeko eta geure burua ezagutzera emateko. Aieteko gazteriarekin batera urte osoan zehar kultur jarduerak, mendi irteerak, film eta diapositiba emanaldiak eta hitzaldiak antolatzen genituen Hezi Tokin. Urte luzez Ikastolaren atzealdean oso arrakastatsuak izan ziren musika jaialdiak antolatu genituen Iparraldeko eta Ez Dok Amairuko kantautoreek parte hartu zuten: Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Mikel Laboa, Pello ta Pantxoa, Etxamendi ta Larralde, Borda ta Sarasola... Gurutzeaga parrokian ere hainbat kontzertu eman ziren. Horren guztiaren helburua auzoan giro euskalduna sortzea eta Ikastolarako diru-sarrerak lortzea zen. Bestalde, gauez euskara ikasteko saioak antolatu ziren Juan Oñatibiaren "Irrati-Euskara Metodoa" izeneko liburua oinarritzat hartuta. Zenbait urtez saio hauek Muntoko sagardotegian izan ziren eta geroago Parrokian.

Ikastola ez zen soilik hezkuntza euskaraz emateaz arduratzen. Haur kopuruaren igoerak eta azpi-egituren gabeziak klaseak ematen genituen lokal guztietan, Gurutzeaga Parrokiaren sakristian, Hezi toki Kultur-etxean, Oblatas monjetan eta Etxadiko behealdeetan, eraikuntza-lanak egitera behartu gintuen. Hori dena 1979 arte izan zen, izan ere, urte horretan Axular Lizeo berria estreinatu zen. Kostuak diru-sarrerak baino ugariagoak izanda ere, ama, aita, andereño, bazkide eta kultur mugimendu hainbaten lanari esker, kurtso amaieran kontuak bat etortzea lortzen genuen. Helburu horren lorpenean oso lagungarri izan ziren auzoko festak, haurrentzako joko, marrazketa eta euskal dantza lehiaketak, musika jaialdiak, Gabonetako zozketa, tabernak, marmitako lehiaketa etab. Kurtso amaiera garaian eta Aieteko festetan, Inude eta Artzaien konpartsek, Txotxongilo Taldeak, Kiski, Miski eta Kaskamelon pailazoek, Pasaiako Tirri-Tarra txarangak ... auzoa girotzen zuten. Urte gogorak izan ziren, lan eskerga egiteko urteak, baina itxaropena ernarazten zutenak.

Ikastolengan eragina izan zuten gatazka politiko eta sozialak

60.hamarkadan Euskal Herrian sekulako aztoramendua sumatzen zen eta gatazka politiko eta sozial handiak eman ziren: Txabi Etxebarrieta ETako kidea eta Melitón Manzanos polizia-komisarioaren heriotzak, torturak, preso eta iheslarien ugaritzea, Burgoseko epaiketa, legalizatu gabeko Ikastolen ixtea ... Sekularizazioarekin batera, eliza katolikoa indarra galtzen joan zen eta honela, ideia marxistek indar hartu zuten ... Diktadura garaiak ziren. Alderdi politikoak ez ziren legalak eta ikurrina izatea delitutzat jotzen zen. Gainera, erregimenak ez zuen uzten seme-alabei euskal izenak jartzen. Ikastola familia bat zen, non gogo handiz, eztabaida eta elkarrizketa ugari izaten ziren, gai askoren inguruan: politika, erlijioa, sexualitatea ... Ez dago arantzarik gabeko arrosarik, eta , maiz jazo ohi den moduan, desadostasunak etorri ziren.

Desadostasunak ideologia arazoetan eta boterearen kontrola izateko lehian zuten jatorria eta baita Ikastolen mugimenduari eman behar zitzaion hezkuntza-orientabidearen inguruko gatazkan ere. Desadostasun ideologiko horietan hainbat ugari nahasiak zeuden. Gizarte arloan bezalatsu, euskal nazionalismoaren baitan zeuden ikuspegi eta joera ezberdinek Ikastolen mugimenduan eragina izan zuten. Batzuek balio tradizionalen moldaketa defendatzen zuten eta beste batzuek balio horien erabateko

eraldaketa eskatzen zuten. Horrela Ikastoletan gizarte mailan zegoen ezkertiar eta nazionalisten arteko dikotomia bera islatu zen .

Etorkizunaren diseinu konplexuaren inguruko eztabaida sutsuak bizi izan ziren, bereziki honako lau puntu hauen ardatzean:

□ Norenak dira Ikastolak? Aita eta Amenak soilik?. Sortzaileak, irakasleak eta Ikastolen Elkartea ez zetozen bat galderei erantzutean .

□ Erlijioa bai ala ez? Emandako babesaren ordainetan, eliza katolikoa Ikastolengan eragina izaten saiatu zen: erlijioaren ezarpena ziurtatzea eskatuz, zuzendariak inposatuz ... baina irakasleria ez zegoen horrekin ados, haiek Ikastola neutroa izan behar zela defendatzen zuten, erlijioa alde batera utzita. Behintzat erlijioaren irakaskuntza irakasleen gain erortzea ekidin nahi zuten, maistra eta katekistaren irudiak bereiziz. Aita eta amek, aldiz, erlijioa ikastoletatik at utzi nahi izatea ez zuten onesten.

□ Euskara batua ala euskalkiak? Ikastoletan erabili behar zen hizkuntza euskara zela argi zegoen. Baina, nola erabili garai hartan normalizatu eta bateratu gabe zegoen euskara hura? Euskara batuaren kontra zeudenek, honi euskaranto deitzen zioten mespretxuz, esperantoarekin lotuz eta euskara batuaren ezarritako "h"-a marxista zela esanaz. Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko irakasleriaren gehiengoa euskara batuaren alde jarri zen, ez baitzitzaien iruditzen euskara batuaren gaia h soil batzuetara mugatzen zenik. Herri baten adierazpenari forma emateko erabateko eta premiazko beharrari estuki lotua zegoen. Euskaltzaindiak, nahiz jarrera kontrajarriak izan, euskararen bateratzearen alde lan egin zuen, 1968ko urrian, Arantzazun egindako biltzarrean.

□ Ikastolak, apolitikoak? Euskal gizartea 60. hamarkada amaieran eta 70.ean erabat politizatuta zegoen eta tentsio politiko eta sozialak gora egin zuen Euskal Herrian. Frankok inposatutako eskubide murrizketa indarren zegoen hartan, Europatik askatasun aireak zetozen, giro ezkertiar eta kritiko bat. Giro berri honek nagusiki belaunaldi gazteak liluratu zituen: formatzeko jakin mina, liburu – trukaketa eta irakurketa ... Halaber, irakasle askok joera horiek bere egin zituen. Ikastoletako sektore kontserbatzaileek hori guztia kezka handiz ikusten zuten. Horregatik Ikastolak ideia berri horietatik urrun mantendu behar zirela eta "apolitikoak" izan behar zutela esaten zuten. Haurrak giro guztiz euskaldunean hazi eta hezi behar zuten..

Hona hemen urte horietan ministro frankistek esandako perla batzuk, tentsio politikoa lasaitzen lagundu ez zutenak: Fraga Iribarne, " Terrorismoa konpontzeko gakoa guardia zibilak baino terrorista gehiago hiltzean dago" edo "Ikurrina legeztatzeko nire gorpuaren gainetik pasa beharko dute". Martín Villa, "Gaztelar hizkuntzak, hots, euskara, katalana eta galiziera, al bait lasterren espainoldu beharra dago".

Legalizazioak eta Eskola-liburuak

Ikastolek hastapenetatik izandako beste arazo handi bat legalizazioarena izan zen, legez at sortu izanak Hezkuntza Ministerioaren aurrean zailtasun handiak ekarri baitzituen. Estatu espainolak 50. hamarkadatik aurrera, hainbat aldaketa pairatu zituen, industrializazioak berarekin ekarri zituenak. 1965ean, Eskola-liburu sistema berria indarrean jarri zen. Ikasle guztien nota guztiak jasotzeaz gain, buletin hura ezinbestekoa zen beste eskola batera aldatzeko eta, are eta garrantzitsuago, batxilergoan apuntatu ahal izateko. Legalizazioa ez zen prozesu azkarra izan, urte batzuk iraun zituen.

Espainiako Gobernura iritsi berri ziren Opus Deiko teknokratek aurrerapenaren gakoa heziketan zegoela bazekiten. Horregatik, irakaskuntzari garrantzia handia eman zioten eta horren ondorioz gizarteak

hezkuntzarekiko zuen ikuspegia aldatzen hasi zen. Eskola gastutzat hartzetik inbertsio moduan ikustera pasa zen. Honela 1970ean XIX. mendean sorturiko hezkuntza sistemaren modernizazioa eragin zuen lege bat promulgatu zen. Hezkuntzaren Erreforma eta Finantziarako Lege Orokorra izena hartu zen, Villar Palasí Lege bezala ezaguna dena, garai hartako Hezkuntza ministroaren izenetik hartua.

Lege honek Eskolaurreko zikloa bi etapatan banatu zuen: Haurtzaindegia (2-3 urte) eta Eskolaurrea (4-5 urte), eskolatzea adin hauetan derrigorrezkotzat jo gabe. Legeak ekarri zuen alderdi garrantzitsuena derrigorrezko eskolatzearen inguruko xedapena izan zen: 6urtetik 14ra bitartean eskolatzea derrigorrezkoa eta doakoa izango zen, Oinarrizko Heziketa Orokorra (OHO) bi ziklotan banatuz.: Villar Palasí legeak ikastolei diru laguntza ofizialak eskuratzeko bidea ireki zien, baina horiek eskuratzeko baldintza gogorrak ezarri zituen Ministerioak. Lehenik eta behin, Oinarrizko Heziketako Ikastetxe izateko kalifikazioa edo baimena lortu beharra zegoen. Horretarako OHoko irakasleria osoa tituluduna izan behar zen., titulu gabeak Eskolaurrera mugatuz. Bestetik, eskolak 4,3 metro koadroko espazioa izan behar zuen ikasleko eta urtero 30-40 ikasleko matrikula kopurua ziurtatu behar zuen. Ahalegin guztiak baldintza hauek betetzean metatu ziren, ikastolen iraupena bera horren baitakoa baitzen. Ikastolek diru inbertsio handiak egin behar izan zituzten.

Zenbait urtez Aieteko Gurutzeaga ikastolak Eskolaurrea eskaini zuen. Antiguako Jakintza ikastolarekin eginiko akordioari esker 1972-73 ikasturtean gure ikastolako lehen ikasleek OHoko 1. maila hasi zuten Jakintzan. Donostia aldean Zurriola (Gros), Orixe (Alde Zaharra), Martutene (Martutene), Ikasbide (Amara) eta Jakintza(Antigua) ikastolak OHoko 2. zikloa eta BBB eta UBI emateko batu egin ziren. Ikastolen Elkarteko kide ginenez, gure ikasleek Lanbide Heziketako ikasketak Martuteneko Eskola Politeknikoan burutu zitzaizketen.

Gauzak horrela, gure ikasleek 18 urte bitarteko eskolaratzea ziurtatuta zuten, Jakintza Ikastolarekin egindako akordioari esker. Akordioak 1977. urtera arte iraun zuen, Jakintza ikastolak lepo egoteagatik ikasle gehiago ezin zitzaizkeela hartu aitortu zigun arte.

Ikastolen mugimenduko ordezkariak Madrilen, Hezkuntza ministroaren aurrean, ikastola guztientzat OHOrako diru laguntzak aldarrikatu zituzten eta Eskolaurrerako laguntza berezia ematea proposatu zuten. Legea errealitatera moldatzea aldarrikatzen zuten, eta ez errealitatea legera. 70. hamarkadaren azken urteetan ikastola gehienek ez zuten OHOrako diru laguntzarik jasotzen, gutxi batzuek bakarrik lortzen zituzten. Eskolaurre eta Batxilergorako ere ez zegoen diru laguntzarik. Eskolaurrea derrigorrezkoa ez zenez, eskola pribatuei ez zitzaaien laguntzarik ematen. Batxilergoan ez zen onartzen ikastolek ziklo hori eskaintzea. Estatuko eskola publikoek soilik jasotzen zituzten diru laguntzak ziklo guztietan. Mayor Oreja ministroarekin harremanak berebiziko garrantzia izan zuen, ikastolei laguntzeko jarrera erakutsi baitzuen. Haren bitartekotasuna eta donostiarra zen Iñigo Caverio Hezkuntza ministroaren lankidetzat tarteko, diru laguntza dezenteak eskuratu ziren eta Elebitasun Dekretua promulgatzea lortu zen, Euskal Erkidego Autonomoan euskaraz buruturiko hezkuntza arautuz.

Franco 1975eko azaroaren 20an hil zen, ia 40 urteko diktaduraren ostean. Haren heriotzarekin etapa berri bati hasiera eman zitzaion hala Espainian nola Euskal Herrian. Aldaketa giro hartan, ikastolen mugimenduak ospe handia hartu zuen. 20 urteko ibilbidea egina zuen, etorkizunarekin eta pedagogia modernoarekin lotura estuan. Arrakastaren bermea zuen aukera gisa agertzen ziren ikastolak garaiko gizartearen aurrean, euskal hezkuntzaren esparruan beste inork ez baitzuen euskaraz hezten eta euskara bera ere irakasten. Beste inork ez zuen ordura arte pedagogia euskaldun berri baten diseinurik garatu... ez zen ikastolen planteamenduaren gisakorik eta hori islatzen zuten ikastolek gizartean: modernitate, euskal identitate berria, demokrazia ...

Euskaltzaindiaren aginduz eta Euskadiko Kutzaren babespean Siadekok buruturiko ikerketaren arabera, 1965ean 29 ikastola zeuden eta 1975ean, aldiz, 172. Ikasleriari dagokionez, 1960an soilik 60 ikasle zeuden eta 1975ean, berriz, ikastoletan 33.581 ikasle eta 1.043 irakasle. Nahiz eta administrazio frankistak beste eskolei eskatzen ez zizkien baldintza legalak izatea eskatu, ikasle kopuruaren hazkunde oso indartsua izan zen.

Arostegi SAren eraketa eta Axular Lizeoaren eraikuntza

Jakintza ikastolara gure ikasleak bidaltzeko ezintasuna zela eta, Eskolaurrearekin soilik jarraitu ala UBI bitarteko ikasketak osatzeko Aieten ikastola berri bat eraikitzearen arteko erabakia hartzera behatuta ikusi genuen geure burua. Aita eta amei Batzar Orokorrerako deia zabaldu genien eta bertan, eztabaida luze baten ostean, Zuzendaritza Batzordeari Ikastola berri bat eraikitzeak zuen bideragarritasuna aztertzeko beharrezko gestioak egiteko baimena eman zitzaion. Siadekori demografia-ikerketak egiteko eskatu genion, Aiete auzoak epe labur eta ertainean izan zezakeen balizko bilakaera demografikoaren estimazioa egin zezan. Une hartan Etxadi eta Bidebieta IIn lanean ari ziren etxebizitza sustatzaileekin ere harremanetan jarri ginen eta baita Aieten eraikitzeako proiektuak zituzten beste zenbaitekin ere. Datu guztiak ikertu ondoren, aukera ona izan zitekeela ondorioztatu genuen.

Donostian bertan ere bazeuden Aietek zituen arazo bertsuak eta Eskolaurre zerbitzua zuten beste hainbat auzo : Landetxe (Amara), Aitor (Egia), Ibai (Ibaeta), Amasorrain (Añorga). Beraiekin hainbat aldiz batzartu ondoren, konponbide bateratu baterako akordiorik ez genuen lortu. Ikastola bakoitzak bere auzoko arazoa bakarka konpondu zuen. Hala ere, hainbat kultur ekitalditan elkarlanean aritu ginen, hala nola 1978ko Urriaren 1ean Zubietako Hipodromoan egin zen Kilometroak ekimenaren antolaketa eta Axular, Bilintx eta Ibai Lizeoen eraikuntzarako dirua biltzeko ekintzetan. 400dik gora bolondres lanean buru belarri aritu ostean, egun euritsu eta hotza atera zen urriko lehena , baina hala eta guztiz ere 18.000 pertsona inguruk burutu zuen ibilbidea, besteak beste 89 urte zituen Joxe Migel Barandiaranek, Koldo Mitxelenak, Nestor Basteretxeak, Antono Labayenek ... Aurreko egunean Pasaiaiko portura iritsitako sardina guztiak jan ziren (150 kilo), 1.700 oilasko erre eta makina bat ogitarteko eta edari. Kontuak eginda, 8 milioi pezetako irabaziak lortu ziren, hiru Lizeoak eta Ikastolen Elkartearen artean banatu beharrekoak.

Gurutzeaga ikastolak behar gorrian zeuden gurasoei hainbat beka ematea adostu zuen. Ikasle guztientzat istripu aseguruak kontratatu zuen.

Udaletxean Azkarrateneko Udal Eskola zaharreko eraikina lortzeko gestioak egin genituen, baina ,arrazoi desberdinak tarteko, ezinezkoa izan zen. Eraikina Gautena elkarteari suertatu zitzaion.

Ignacio Iturzaetak, Etxadi Urbanizazioaren promotoreak, Arzak familia ordezkatzuz, Etxadiko Urbanizazioari egokituriko eskola gunea doan eskaini zigun, Ikastola berria eraiki ahal izateko tokia.

Ikastola berrirako sozietate berria abian jartzeko beharrak eraginda, sozietate anonimoa edo sozietate kooperatiboa egitearen abantaila eta desabantailak eztabaidatu ziren eta, aho batez, Batzarrak sozietate anonimo gisara arautzeko hautua egin zuen.

1976ko martxoaren 17ko dataz Arostegi SA sozietatea sortu zen Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, 50.000 pezetako kapital sozialarekin, 16 gelako (24ra zabaltzeko aukerarekin) eskola berri baten eraikuntzari berme juridikoa eman asmoz

Guraso-Batzarrak honako karguak izendatu zituen :

Lehendakaria: Claudio Artesano
 Lehendakari ordeak: José Manuel Gil
 Diruzaina: José Mari Razkin
 Idazkaria: José Juan Erkizia

Lehentasunak honakoak izan ziren: Eskolaurreko eta OHOk bi zikloak abian jartzeko legeztatzea lortu, kapital sozialaren beharrezko gehikuntzak egin, Lizeo berriaren eraikuntza finantzatzeko beharrezko ziren 1.000 pezetako 7278 akzio nominalak jaulkiz.

Eskola berria eraikitzeko erabakia hatu eta gero, elizaren babesean jarraitzeak zentzua galdu zuen. Horren ondorioz ikastolaren izena aldatu zen: Gurutzeaga ikastola izatetik Axular Lizeoa izatera pasa zen. Izena aldatzearen gaia atera zenean, iritzi desberdinak izan ziren. Batzuk Elizarekin harremana zuten izenekin jarraitzearen edo Euskal Herriko pertsonaia garrantzitsuen izenak erabiltzearen aldeko ziren; beste batzuk, aldiz, nazioarte mailako pertsonaia garrantzitsuen izenak (Marx, Gandhi ...) nahiago zituzten. Begi bistakoa denez, azken aukera honek ez zuen arrakastarik izan. Azkenik, Arostegi SAREN Oinarrizko Printzipioak, Araudiak eta Barne Erregimenerako Estatutuak idatzi eta onartu ziren.

Burokrazia tarteko ikastola berriaren eraikuntza lanak atzeratzen ari zirela ikusita eta 1977-1978 ikasturtea eraikin berrian hastea ezinezkoa izango zenez, Ignacio Iturzaetak Etxadi urbanizazioan utzitako zenbait lokal egokitu ziren, Gurutzeaga parrokiako egoitza erabiltzerik ez baitzegoen 50 urteurreneko ekitaldiak zirela eta..Egin beharreko obren baimen eta kostuak gure gain hartu behar izan genituen. Lan horietan auzolanean aritu ziren hainbat guraso.

José Manuel Gilek, Ikastolaren ordezkari legez, Madrilen Iñigo Cavero ministroari Axular Lizeo berriaren aurreproiektua aurkeztu zion. Ministerioak 1976ko uztailaren 6an onartu zuen aldaketa txiki batzuekin.

1978ko urtarrilaren 28ko 418/1978 Errege Dekretuak Axular Lizeoren eraikuntza lanak "interés social" proiektutzat jo zuen. 1983ko azaroaren 11 arte itxaron behar izan genuen Espainiako Hipoteka Bankuak emandako 8.610.000 pezetako laguntza jasotzeko.

Ignacio Iturzaetak Etxadi urbanizazioko eskaini zigun orubea erabiltzerik ez genuela izango adierai zigun, Donostiako udalak orubea bereganatzea erabaki baitzuen udal eskola eraikitzeko.

Egoera berriaren aurrean, Ignacio Iturzaetak 200 metrotara zegoen 12.600 metroko lur eremu bat eskaini zigun. Proiektua eraberritu behar izan genuen eta Hezkuntza Ministeritzaren Ordezkartzan eta Udaletxean baimen berriak eskatu. Gurutzeaga ikastolaren Ez-ohiko Batzar deialdia egin genuen eta, eztabaida luze eta polemikoaren ostean, gurasoen gehiengo batek proiektuari jarraipena ematea erabaki zuen. Esan beharra dago guraso talde bati proiektua burutzea ezinezkoa iruditu zitzaizola eta ikastola utzi zutela, jarraitzea erabaki zutenen egoera ekonomikoa kaltetuz.

Orubeak zuen maldak proiektua garestitzea zekarrela jakinda, eskaintza onartu egin genuen. Orubea lehenago San Patricio ikastetxe ingelesari eta Poliziari eskaini zitzaie, baina arrazoi desberdinengatik ez zuten onartu. Ignacio Iturzaetaren bitartekaritzari esker, Carlos Casla arkitektoaren estudioak eraikinaren proiektua egitea eta Luis Fernandez aparejadoreak lortu genuen eta baita Luis Fernandez aparejadoreak eraikuntza lanak zuzentzea lortu genuen, inolako kosturik gabe. Gainera, finantzaketa, baimen eta legeztatze kontuetan laguntza handia eskaini zigun.

Eraikuntza lanen jarraipena egin zen ezustekoak ahal zen neurrian saiheste aldera. Astero Luis Fernandez aparejadorea, kontratista, gremioak eta Ikastolako ordezkaria zen Claudio Artesano batzartzen ziren. Indiano baserriko Jose Salaberriarekin orubearen mugak zirela eta arazoak izan genituen, autobusak bira eman ahal izateko bere lurretan zertxobait sartu ginelako. Azkenean ados jarri ginen eta baimena eman zigun.

Lan Publikoen Sailak autopista aldera gerta zitezkeen luiziak ekiditeko euste horma eraikitzea eskatu zigun. Lurraren ikerketa geologikoa egin genuen arren, zimenduak jartzeko garaian uste baino sakonago indusi behar izan genuen. Lurrez estali beharreko hutsunea geratu zen, baina estali ordez udal baimenik gabe jangela egitea erabaki genuen, indusketen gain karga ekonomikoa amortizatuz.

Ezusteko horiek eta bestelako hobekuntzek proiektua garestitzea ekarri zuten baina merezi izan zuen. Ahalegin ekonomikoa sekulakoa izan zen. Zuzendaritza Batzordeko gurasoek bere etxebizitzak jarri zituzten bermetzat banketxetako kredituei aurre egiteko. Proiektua aurrera atera ezean gure etxebizitzak bahituko zizkiguten beldur ginen.

Ikastetxe berriaren eraikuntzak ekarritako arazo ekonomikoak zirela eta, Donostia eta Hernaniko ikasleei matrikulatzeko aukera zabaltzea erabaki genuen, irrati eta egunkarietan iragarkiak argitaratuz, kartelak jarritz.. Jangela zerbitzua behar zuten familiei Borroto tabernako jangelan ematea bururatu zitzaigun.

Garraiorako Enrique Mirasolainen autobus zaharra kontratatu genuen, oso merkea zena baina maiz matxuratzen zena. Andereño eta gurasoek ahal zuten bezala konpontzen zituzten arazo horiek.

Axular Lizeo berriaren eraikuntza lanak 1977ko uztailaren 11n hasi ziren. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin hipoteka agiria gauzatu zen, 12.600 metro koadroko orubeagatik 35.000.000 pezetako mailegua eskatuz. 1979ko otsailaren 4an estreinatu zen. Urte luzez euskaraz heztearen aldeko apustu egin eta Aiete auzoan Eskolaurretik UBIra arte ikasteko aukera izatearen alde gogor lan egin genuenontzat egun berezia izan zen. Ospatzeko frontoian ekitaldi bat egin zen. Zuzendaritza Batzordeko lehendakari zen Claudio Artesanoren agurra eta gero, Carlos Santamariak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailburuak, ofizialki inauguratu zuen Axular Lizeoa. Jangelan Tomas Almandozek (Lizeoko aita eta antolatzailea) , Juan Mari Arzakek, Pedro Subijanak eta abarrek prestatutako luncha eskaini zitzaizen guraso,ikasle eta proiektua burutzen lagundu zuten kolaboratzaileei. Egun borobila izan zen, dantzaldi, pailazo, fanfarre eta guzti.

Eratze unetik Ikastolak guraso eta irakasleekin batera ikasleei garapen integrala eskaintzeko ardura hartu zuen bere gain, euskararen ezagutza eta ikaskuntza sustatuz, gaztelania eta ingelesarekin osatuz. Euskal gizartearen aniztasun ideologikoaren baitan, ikastola osatzen duten pertsonen iritzi politiko eta erlijiosoak errespetatuz, ikastola apolitiko eta akonfesionaltzat jo zuen bere burua.

Joan etorri ugariaren ostean, atsegin handiz ikusten dut Axular Lizeoaren bilakaera, 50 urte hauetan euskal hezkuntzan punta puntako ikastetxe izatera eraman duena.

Amestu genuelako eta amets hori errealitate bihur zedin lanari gogor ekin geniolako gaude harro. Ametsak, lana eta lankidetzak: horra hor arrakastaren giltzarriak. Eskuz esku, belaunaldiz belaunaldi, jarrai ditzagun ilusioz erabiltzen.

1969- 1979 bitarteko ikasturteetako datuen banakatzea

Urteak	Egoitza-lekua (k)	Ikastola-izena	Haurrak	Andereñoak	Oharra
1969 /1970	Aieteko eliza	Gurutzeaga ikastola	7	Arantxa Aldasoro	Donostiako Aiete auzoan 1969an sortzen da
1970 / 1971	Aieteko eliza	Gurutzeaga ikastola	25	Arantxa Aldasoro	

1971 / 1972	Hezi Toki (Herri eskola)	Gurutzeaga ikastola	40	Arantxa Aldasoro M ^a Pilar Goñi	Ikastolako lekua aldatzen da
1972 / 1973	Oblatas (monja etxea)	Gurutzeaga ikastola	45	Arantxa Aldasoro M ^a Pilar Goñi	Gure haurrak OHOk lehenengo maila hasi zuten Jakintzan Ikastolako lekua berriro aldatzen Da
1973 / 1974	Aieteko eliza Hezi Toki (Herri eskola)	Gurutzeaga ikastola	41	Arantxa Aldasoro M ^a Pilar Goñi	Ikastolako lekua berriro aldatzen da
1974 / 1975	Aieteko eliza Hezi Toki (Herri eskola)	Gurutzeaga ikastola	42	Arantxa Aldasoro M ^a Pilar Goñi	
1975 / 1976	Aieteko eliza Hezi Toki (Herri eskola)	Gurutzeaga ikastola	47	M ^a Pilar Goñi Karmele Urdanpilleta Marixabel Illarregi	
1976 / 1977	Etxadi hauzoa	Gurutzeaga ikastola	60	M ^a Pilar Goñi Karmele Urdanpilleta Marixabel Illarregi	Ikastolako lekua berriro aldatzen da
1977 / 1978	Etxadi hauzoa Aieteko eliza	Gurutzeaga ikastola	142	M ^a Pilar Goñi – Karmele Urdanpilleta Marixabel Illarregi – Maite Aranburu Bitxori Olaetxea – Ixabel Aldasoro	Gure haurrak OHO-ko lehenengo maila hasi zuten Aieten Lizeoan obrak hasi ziren
1978 / 1979	Arostegi kalea	Axular Lizeo berria	262	M ^a Pilar Goñi – Karmele Urdanpilleta Marixabel Illarregi – Maite Aranburu Bitxori – Olaetxea – Ixabel Aldasoro María Jesús Tapia	Axular Lizeoak Hautzaingegiko bi gela Eskolaurreko hiru gela eta OHO-ko lehenengo zikloko bi gela, zabaldu ziren

Gurutzeaga Ikastolako Zuzendaritza-Batzordeko kideak eta beste kolaboratzaile batzuk

Iñaki Fernández (zendua) – Gurutzeaga Ikastolaren aita sortzaileetako bat izan zen. Ikastolaren ordezkari izan zen Ikastolen Elkarteko bileretan. Hasieratik eskolaurrearen abiaraztean lagundu zuen.

Claudio Artesano – Gurutzeaga Ikastolaren aita sortzaileetako bat izan zen. Luis Irigoien Aieteko apaizarekin batera auzoko familiei Ikastolaren proiektu berria aurkeztu zien haurrak eta kide kolaboratzaileak lortzeko helburuarekin. Ikastolaren ordezkari izan zen Ikastolen Elkarteko bileretan eta baita Axular Lizeo berriaren Lan Batzordean ere. Gurutzeaga Ikastolako Zuzendaritza Batzordeetan zuzendari izan zen hamaika urtez, Axular Lizeoaren abiaraztera arte.

Juan Azpitarte – Gurutzeagako erretore, parrokiako sakristian ikastolako ikasleek zenbait urtez eskolak jasotzeko baimena eman zuen.

Luis Irigoien (zendua) – Gurutzeaga parrokiako apaiza, Aieten egondako urtean zehar Ikastolarekin elkarlan estuan aritu zena.

José Manuel Gil – Bere zeregin nagusia Ikastolari forma juridikoa ematea izan zen. . Idazkari eta zuzendari ordea izan zen eta Lizeo berriaren proiektuan aktiboki elkarlanean aritu zen, kudeaketa juridiko eta finantzarioen arduradunetako bat izanik.

José Mari Razkin – Ikastolako diruzaintzaz arduratu zen eta baita gurakoekin eta entitate ofizialekin komunikatzeaz ere.

José Juan Erkizia – Zuzendaritza Batzordeko idazkaria izan zen eta Ikastolan antolatzen ziren ekitaldi guztietan lagundu zuen.

Ignacio Iturzaeta – Ikastolako Zuzendaritza Batzordeko aholkularia. Eskolaurrearekin soilik jarraitu edo ikasleei hezkuntza ziklo osoa Aieteko auzoan burutzeko aukera emateko zalantzaren aurrean, Ignacio-k, Etxadiko Urbanizazioko bultzatzaile eta Arzak familiaren izenean, 12.600 metro koadroko eremu jabetza gisa eskaini zuen Axular Lizeo berria eraikitzeko. Gainera, gestio finantzarioan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerio, Udaletxe eta Arkitektura Eskolako baimenen lorpenetan, etab. lagundu zuen.

Gurutzeaga Ikastolako Zuzendaritza Batzordeetan egon ziren beste guraso batzuk: Jesús Mari Villalba – Manolo García – José Luis Sanso - Juan Carlos Lamikiz - Iosu Rueda - José Ignacio Echarri - Jon Urrujulegi - Mikel Azpilikueta – Santiago Ibarburu (zendua) – José Zugarramurdi – Jesús Arzamendi – Luis Murua - Aurora Romero...

Axular Lizeoaren eraikuntzan lagundu zutenetako pertsona batzuk: Etxadi urbanizazioko promotoreak - Arzak familia – Carlos Casla (zendua) (Arkitektoa) – Luis Fernández (zendua) (Aparejadorea) – Antonio Elosegi (Abokatua) – José Antonio Zabala (zendua) (Abokatua)



Claudio Artesano (2018)